

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*757/2011 FORU AGINDUA, irailaren 15(e)koa, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga merkataritza dokumentuen modalitatean aitortzeko 30A eredu berria onartzen duena.*

Euroa moneta sisteman sartzear zegoenean, azaroaren 21eko 1165/2001 Foru Aginduaren bidez onarturik geratu zen Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga merkataritza dokumentuen modalitatean aitortu eta likidatzeko gaur indarrean den 30A eredu, eta horrela garatu zen abenduaren 30eko 18/1987 Foru Araua, zerga hori arautzen duena.

Foru agindu horretan eratutako ereduak aurkezteko, etiketa itsasgarri bat erabili beharra dago eta kasuan kasuko efektuari erantsi entitate laguntzaileak zigilatu ondoren. Alabaina, gaur egungo merkataritza trafikoaren ezaugarriak aintzat harturik, eredu zahartuta geratu da, eta sistema hori ez da eraginkorra gertatzen.

Horren ondorioz, eredu berriaren etiketa hori desagertu egiten da, lauki berriak sortzen dira efektuaren datu gehiago adierazteko, eta 4 alek osatzen dute orain ereduak. Horietako bat dagokion efektuarekin batera joango da, eta helburua izango da bidezko neurriak hartzea dokumentua eta haren ordainketa behar bezala identifikatzeko.

Horregatik guztiagatik, zergaren 18/1987 Foru Arauaren 34. artikuluan eta haren erregelamendua onartzen duen martxoaren 22ko 9/2011 Foru Dekretuaren 25. artikuluan emandako baimenez baliatuz, honako hau

## XEDATZEN DUT

*1. artikulua. 30A eredu berria onartzea.*

1. Onarturik geratzen da 30A ereduak, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga—egintza juridiko dokumentatuen kontzeptua— autolikidatzeko erabili beharrekoa, foru agindu honetan eranskin gisa ageri dena.

2. Ereduek lau ale ditu: Administrazioarena, interesatua, merkataritza dokumentuari atxiki beharrekoa, eta entitate laguntzailearena. Merkataritza dokumentuari atxiki beharreko aleak hari itsatsita joan behar du.

Giro funtzioa betetzen duten edo kanbio letrak ordeztzen merkataritza dokumentuak egiteagatik aurkeztu behar da ereduak. Orobat, eskudirutan ordaintzeko eredu hau aurkeztu behar da kanbio letretan 192.323,87 euroko zenbatekoa gainditzen duen zatiagatik.

3. Eredua eskuragarri izango da Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean, <http://www.gipuzkoa.net/ogasuna> helbidean sartuta. Datuak «PDF» formulario betegarrian bete ahal izango dira, bai eta formulario hori bera inprimatu gero aurkezteko. Nahi bada, dokumentu hori eskuz ere bete ahal izango da webgunetik inprimatu ondoren.

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*ORDEN FORAL 757/2011, de 15 de setiembre, por la que se aprueba el nuevo modelo 30A de declaración del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, en su modalidad de documentos mercantiles.*

Ante la introducción del euro en el sistema monetario, la Orden Foral 1165/2001, de 21 de noviembre, aprobó el vigente modelo 30A de declaración-liquidación del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, en su modalidad de documentos mercantiles, en desarrollo de la Norma Foral 18/1987, de 30 de diciembre, del citado Impuesto.

Dicha Orden Foral configuraba el modelo mediante la utilización de una etiqueta autoadhesiva que, previamente sellada por la entidad colaboradora, se incorporaba al efecto correspondiente, lo que ha devenido en la actualidad, teniendo en cuenta las características del tráfico mercantil hoy en día, en un modelo obsoleto e ineficiente.

En consecuencia, se elimina la mencionada etiqueta, se incorporan nuevas casillas para obtener más datos relativos al efecto y se dota de 4 ejemplares al modelo, atribuyendo a uno de ellos la función de acompañar al efecto correspondiente, con el fin de adoptar las medidas oportunas para la perfecta identificación del documento y del ingreso correspondiente al mismo.

Por todo ello y en virtud de la autorización conferida por el artículo 34 de la referida Norma Foral 18/1987 del Impuesto y en el artículo 35 de su Reglamento, aprobado por Decreto Foral 9/2011, de 22 de marzo,

## DISPONGO

*Artículo 1. Aprobación del nuevo modelo 30A.*

1. Se aprueba el modelo 30A de autoliquidación del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, concepto Actos Jurídicos Documentados, que figura como Anexo a la presente Orden Foral.

2. Este modelo consta de cuatro ejemplares: Ejemplar para la Administración, ejemplar para el interesado, ejemplar para adjuntar al documento mercantil y ejemplar para la entidad colaboradora. El ejemplar para adjuntar al documento mercantil deberá quedar unido al mismo.

El modelo deberá ser presentado por la expedición de documentos mercantiles que realicen función de giro o suplan a las letras de cambio. Asimismo, se presentará este modelo de pago en metálico, por el exceso sobre la cuantía de 192.323,87 euros que se produzca en las letras de cambio.

3. Al citado modelo podrá accederse a través de la página web del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa en la dirección <http://www.gipuzkoa.net/ogasuna> cumplimentando los datos en el mismo formulario «PDF» rellenable e imprimiendo el documento para su presentación o bien mediante su cumplimentación manual previa impresión del documento.

*2. artikulua. 30A eredia aurkeztera behartuak.*

1. Kanbio letrak egiten dituztenak daude behartuta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga merkataritza dokumentuen modalitatean autoliquidatzera 30A eredia erabilita, 192.323,87 euroko oinarri likidagarritik gorako zatiagatik. Aldiz, ez dira eredu hori aurkeztera behartuta egongo kanbio letrak atzerrian egin badira, kasu horretan Gipuzkoako lehen edukitzaileak izango baitira horretara behartuak, betiere Espainian lehen edukitzaileak badira eta ohiko egoitza edo zerga helbidea Gipuzkoan badute.

2. Era berean, foru agindu honen bidez onartutako eredia aurkeztera behartuta daude giro dokumentuak edo kanbio letren ordezkioak nahiz seriean jaulkitako antzeko tituluak egiten dituztenak.

*3. artikulua. 30A eredia aurkezteko epea eta tokia.*

1. Behar bezala bete ondoren, 30A eredia Zergabilketa Erregelamenduaren arabera laguntzaile gisa jarduteko baimenduta dauden entitateetako batean aurkeztu behar da, aurretik kalkulaturako zerga zorra ordaintzeko.

Entitateak interesatuaren alea eta merkataritza dokumentuari atxiki beharrekoa itzuliko dizkio aurkezleari, horiek zigitatu eta gero, eta ereduan dagoen Administrazioaren alea bidaliko dio Administrazioari.

2. Eredua hogeita hamar eguneko epean aurkeztu behar da entitate laguntzailean, dokumentua formalizatzen den egunetik aurrera kontatuta, eta betiere, efektua mugaegunera iritsi aurretik edo, hala bada, hura eskualdatu aurretik.

*Xedapen indargabetzailea.*

Foru agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera, indargabetuta geratzen dira foru agindu honetan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak, eta, bereziki, azaroaren 21eko 1.165/2001 Foru Aginduaren 13. eta 14. artikulua. Foru agindu horren bidez onarturik geratu zen, besteak beste, 30A eredia, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga merkataritza dokumentuen modalitatean aitortu eta likidatzeko erabili beharrekoa, eta eredu hori non eta noiz aurkeztu arautu zen.

*Amaierako xedapena.*

Foru agindu hau 2011ko urriarren 1ean jarriko da indarrean.

Donostia, 2011ko irailaren 15a.—Helena Franco Ibarzabal, Ogasun eta Finantza Departamentuko Foru Diputatua.

(7942)

(9774)

*Artículo 2. Obligados a la presentación del modelo 30A.*

1. Estarán obligados a la presentación del modelo 30A de autoliquidación de la modalidad de documentos mercantiles del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, por el exceso sobre la base liquidable de 192.323,87 euros, los libradores de las letras de cambio, salvo que las letras de cambio se hubieren expedido en el extranjero, en cuyo caso lo estarán sus primeros tenedores en Gipuzkoa, si son primeros tenedores en España y tienen su residencia habitual o domicilio fiscal en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. Asimismo, estarán obligados a la presentación del modelo aprobado mediante la presente Orden Foral las personas o entidades que expidan los documentos de giro o sustitutos de las letras de cambio, así como los títulos análogos emitidos en serie.

*Artículo 3. Lugar y plazo de presentación del modelo 30A.*

1. El modelo 30A debidamente cumplimentado deberá ser presentado en las Entidades autorizadas en los términos del Reglamento de Recaudación para actuar como colaboradoras, a fin de ingresar la deuda tributaria previamente determinada.

La Entidad devolverá al presentador, previamente sellados, el ejemplar para adjuntar al documento mercantil y el del interesado, y remitirá a la Administración el ejemplar que para ésta se establece en el modelo.

2. La presentación en la entidad colaboradora deberá efectuarse dentro de los treinta días siguientes contados desde el día en que se formalice el documento y, en todo caso, con anterioridad a la fecha del vencimiento del efecto o, en su caso, de la de su transmisión.

*Disposición derogatoria.*

A partir de la entrada en vigor de la presente Orden Foral quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo previsto en la presente Orden Foral y, en particular los artículos 13 y 14 de la Orden Foral 1.165/2001, de 21 de noviembre, que aprobaba, entre otros, el modelo 30A de declaración-liquidación del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, en su modalidad de documentos mercantiles, regulándose el lugar y plazo de presentación.


*Disposición final.*

La presente Orden Foral entrará en vigor el 1 de octubre de 2011.

Donostia-San Sebastián, a 15 de setiembre de 2011.—La Diputada Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Helena Franco Ibarzabal.

(7942)

(9774)

 <p>Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa</p> <p>Ogasun eta Finantza Departamentua Departamento de Hacienda y Finanzas</p> <p>www. gipuzkoa.net / ogasuna</p> <p>*840060112011*</p>	<p>Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga</p> <p>Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados</p> <p>Egintza Juridiko Dokumentatuak / Actos Jurídicos Documentados Merkataritza Dokumentuak - Documentos Mercantiles</p>	<h1 style="font-size: 2em;">30A</h1> <p>Código de Organismo / Organismo kodea: <b>75 03 6</b></p>
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------

Subjektu Pasiboa Sujeto Pasivo	IFZ / NIF	Deiturak eta izena - Sozietatearen izena / Apellidos y nombre - Razón social				
	Helbidea / Domicilio	Zk./Nº	Letra	Pisua/Piso	Ald./Mano	Telefonoa/Teléfono
	Udalerría / Municipio	PK / CP		Probintzia / Provincia		

Ordezkaría Representante	IFZ / NIF	Deiturak eta izena - Sozietatearen izena / Apellidos y nombre - Razón social			
	Helbide Fiskala / Domicilio Fiscal	Udalerría/Municipio	PK / CP	Telefonoa/Teléfono	

**Autoliquidazioa / Autoliquidación**

<p><b>Merkataritza Dokumentua / Documento Mercantil (1)</b></p> <p> <input type="checkbox"/> Letra                    <input type="checkbox"/> Ordaindukua                    <input type="checkbox"/> Errezibua                    <input type="checkbox"/> Bestelakoak                  Letra    Pagaré    Recibo    Otros             </p> <p>Efektuaren zk. / Efecto nº: ..... Zenbatekoa /Importe: ..... Txanpona / Moneda: .....</p> <p>Libramendu edo emate data / Fecha de libramiento o expedición: .....</p>		
<p><b>Oinarri likidagarria / Base liquidable (2)</b> .....</p>		
<p><b>Kuota / Cuota:</b></p> <p>Oinarri likidagarria 192.323,87 arte mailaketaren arabera (letrak ezik)                  Base liquidable hasta 192.323,87 según escala (excepto letras) <b>(3)</b>.....</p> <p>192.323,87tik gaineko soberakinaren % 3                  3 % del exceso sobre 192.323,87 <b>(4)</b>.....</p>		
<p>Data eta sinadura / Fecha y Firma</p>		<p><b>Ordaintzekoa, guztira</b>  <b>Total a ingresar (5)</b>.....</p>

Ordainketa entitate laguntzaileetan egingo da (bankuak, aurrezki kutxak edo kreditu kooperatibak)  
 El ingreso se efectuará en entidades colaboradoras (bancos, cajas de ahorro o cooperativas de crédito)

Sarrera-frogagiria Justificante de ingreso				
	Zigilua eta sinadura Sello y firma	Entitatearen gakoa Clave entidad	Data Fecha	Zenbatekoa Importe

Jarraibideak

- "Egintza Juridiko Dokumentatuak – Merkataritza Dokumentuak" kontzeptuari lotutako efektu bakoitzeko, eredu honen ale bana bete beharko da.
- Zenbatekoak eurotan jartzen badira, laukitxoak bi dezimalekin beteko dira kasu guztietan.
- Dirusarrera Zergaren Foru Arauak xedatzen duen epean egin beharko da.
- Ordainketa entitate laguntzaileetan egingo da (bankuak, aurrezki kutxak edo kreditu kooperatibak).
- Entitate laguntzaileak inprimakian jasotako datuak egiaztatuko ditu eta aurkezleari itzuli interesatuaren alea eta merkataritza dokumentuari atxikitzeko alea, biak zigilatutak.

**Autoliquidazioa**

1 Adierazi X batez zein efektu mota den.

2 Oinarri likidagarria agertuko da, eta bat etorriko da efektuaren zenbatekoarekin, beti ere eurotan. Dena den, baldin eta epemuga sei hilabetetik gorakoa bada, jaulkipen egunetik aurrera, zenbatekoaren bikoitza jarri beharko da.

3 Oinarri likidagarria 192.323,87 eurotik gorakoa ez denean, kuota ondorengo mailaketaren arabera zehaztuko da:

Behe muga / Desde	Goi muga / Hasta	Kuota / Cuota
0	24,04	0,06
24,05	48,08	0,12
48,09	90,15	0,24
90,16	180,30	0,48
180,31	360,61	0,96
360,62	751,27	1,98
751,28	1.502,53	4,21
1.502,54	3.005,06	8,41
3.005,07	6.010,12	16,83
6.010,13	12.020,24	33,66
12.020,25	24.040,48	67,31
24.040,49	48.080,97	134,63
48.080,98	96.161,94	269,25
96.161,95	192.323,87	538,51

Ganbio letrek 192.323,87 eurotik gora doan kopuruagatik bakarrik tributatuko dute, hurrengo paragrafoan xedatutakoaren arabera.

4 Oinarri likidagarria 192.323,87 eurotik gorakoa bada, kopuru horren gaineko soberakinari dagokion kuota kalkulatzeko, aipatu soberakinaren 6,01 euroko edo zati bakoitzeko 0,018030 euroko tasa aplikatuko zaio.

5 "Ordaintzekoa, guztira" laukian jarriko da 3 eta 4 laukietan jasotako zenbatekoen batuta.

Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legea betez, Ogasuneko zuzendari nagusiak jakinarazten dizu ematen dizkiguzun datuak zerga helburuetarako fitxategi batean gordeko ditugula.

Datu horiek hirugarren pertsonari eman edo komunikatu ahal izango zaizkie, araudi aplikagarrian aurreikusten diren kasuetan eta, bereziki, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauan zehaztutako kasuetan.

Nahi baduzu, datu horiek eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, idatzi bat hona bidalitz: Errotaburu pasealekua 2 · 20.018 Donostia.

Instrucciones

- Se rellenará un impreso de este modelo por cada efecto sujeto al concepto de Actos Jurídicos Documentados - Documentos Mercantiles.

- Las casillas de importes en euros deberán rellenarse, en todos los casos, con dos decimales.

- El ingreso deberá efectuarse en el plazo establecido por la Norma Foral del Impuesto.

- El pago se efectuará en Entidades Colaboradoras (bancos, cajas de ahorro o cooperativas de crédito).

- La entidad colaboradora verificará los datos consignados en el impreso y devolverá al presentador el ejemplar del interesado y el ejemplar para adjuntar al documento mercantil previamente sellados.

**Autoliquidación**

1 Marcar con una X según sea una clase de efecto u otra.

2 Figurará la base liquidable, que coincidirá con la cuantía en euros del efecto salvo que el vencimiento exceda de seis meses, contados a partir de la fecha de emisión, en cuyo caso se consignará el duplo de la cuantía.

3 Cuando la base liquidable no exceda de 192.323,87 euros, la cuota se determinará según la escala siguiente:

Las letras de cambio sólo tributarán por el importe que exceda de 192.323,87 euros, en base a lo dispuesto en el párrafo siguiente.

4 Cuando la base liquidable exceda de 192.323,87 euros, la cuota correspondiente al exceso sobre dicha cantidad se determinará aplicando 0,018030 euros por cada 6,01 euros o fracción.

5 En el "total a ingresar" se consignará la suma de las cantidades señaladas en las casillas 3 y 4.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, el Director General de Hacienda informa de que los datos que nos facilita se incorporarán a un fichero para fines tributarios.

Estos datos podrían ser cedidos o comunicados a terceras personas en los supuestos previstos en la normativa aplicable y, en particular según lo dispuesto en la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Si lo desea, puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición a los mismos dirigiendo un escrito a: Paseo Errotaburu nº 2, 20.018 Donostia-San Sebastián.